

Timoteo Zuazua Urrutia

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1922-2007)*

Aurkibidea

Biografia



Galartza elizateko Egileor baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Eskoriatzako Iturbe baserrikoa (Gellao elizatea). Baserria kaletik gertu zuten, hortaz baserriko lanez gain, kaleko bizimodua eta kaletarrak ongi ezagutzen zituen.

Zintak

ARE-016

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-06-19
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Antxia Uribe-etxebarria, Jon - Elortza, Kepa - Elexpuru, Juan Martin

ARE-017

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-06-19
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** MiniDV

ARE-072

- **Proiektua:** Loramendi Euskara Elkarte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arbulo, Iratxe - Otaegi, Leire
- **Data:**
- **Iraupena:** 14 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Euskara Elkarte, Loramendi

ARE-080

- **Proiektua:** Loramendi Euskara Elkarte
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:**
- **Iraupena:** 9 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Euskara Elkarte, Loramendi

Pasarteak

1. Antzinako bizimodua; ume ugari etxe guztietan

- **Erref:** ARE-016/003
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:04:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Antzinako bizimodua baserrian. Ume asko familia guztietan; jaio eta berehala bataiatzen zuten. Lehenago ume asko hiltzen ziren; aingeru kanpaia. Medikuak eta abadeak.</p>

Transkripzioa

- Akordatzen naiz, gaiñera, lehengunian aittatu zenduala, orduan, baserrixetan ume asko egoten ziala.

- Bai.

- Eta osasuna zekanak, bueno, tira...

- Bai, tira. Baiña osasunik ez eukena, "al sacco". Osasunik ez eukena, ba orduen, egun guztietan, egun guztiek, umien kanpaiek, umien kanpaiek diferente jotzen zittuen orduen, "aingeruen kapaiek" esaten jaten. Umiok jaio ta bigarren, hurrengoko egunien, bautizau ein biher izeten zan hiltten bazan be, bestela zerura be ez zan juaten umioi, ta ez dakigu, ba, zer, linbora edo juaten ei zan ha. Esaten euen linbora faten zala, ta neu ez naz egon oinddio leku... umioi linbora faten zan lehelengo-lehelengo. Orduen, garai hartan, persona bat jausi eitten bazan be, jausi, ezta?, min eindda jausi, hazurrak apurtu edo, hiltten baeuen be, lehelengo abadiaana faten zan jentie; medikuaana gero. Holaxe bizi gintzen, halaxe zala ba. Abadie biher zan bertan ta. Zuk ez dozu hori ezautu. Entzunda eukiko dozu, lehelengo abadiaana. Abadiak "Ene! Abadie! Abadie!"... Ba bialdu deixen eskilleretan gora izengo zan abadioi. Neuk ez dot ikusi bat be faten oinddio, baiña ez dakit.

- Orduan, abadiagana lehelengo.

- Lehelengo, medikuana baiño lehenau. Edo etxien persona bati atakiak, atake batek, holaxe da!, zeindde... zer bat, edozer gauza etxien, ez dakitzu?, pasetan jakola, lehelengo abadiana. Takarraran abadiana; medikuana gero. Ta nik uste dot lehelengo medikue edo sendagillie biheko dala, uste dot neuk. Neuk hala. Lehelengo ha izengo da ta gero bestie etorten bada ta lagun eitten badau ondo egongo da, baiñe biherrezkue mundu hontan bizitteko ha izengo da. Neuri pentsau. Iñok ez dost esan. Neuri pentsau.

2. Aretxabaletako medikuak

- **Erref:** ARE-016/004
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Aretxabaletan egon ziren medikuak gogora ekartzen ditu. Baserriz baserri ibili behar izaten ziren; besteak beste, umeak mundura ekartzen laguntzen. Medikuek bat bizikletaz joaten zen baserrietara.</p>

Transkripzioa

-Medikuak-eta hemen Aretxabaletan asko ezautuko zenduzen, ez?

-Aretxabaletan ba, bat nik nire denporan bat egon zan; beste bat mediku zaharra, don Severiano, ha sonbrerotxo bateaz ibiltten zan pasiuen gure mutiko denporan. Eta gero don Tomas Agirre. Kotxeik ez euken eta bizikletan ibiltten zan; eta horra zeara, Urkulure edo, horra deketan utsen. Gero hara goiko basarrira iguel, eta orduen medikuek ibiltten zien, ta ez euen kamiñoik. Kamiñua hor baeuen, baiña -lehengunien be esan notsun-. Bueltan badator bizikleta gaiñien, eta hor kalien entradan baserri bat,

Basabe baserrixe, txakurrek hanguek urten dotse, eta bera [...] ta txakurrek hasi die burruken eta jausi bueltaka, izterra apurtu medikuorrek. Bai, izterra apurtu. Eta gero, ba, ez dakit ha holan egon zan denporan ba, Eskoritzakuak edo eingo euen, ez dakit. Orduen medikuek, pentsaizu, Aretxabaletan mediku bat. Eta hori Urkulu aldioi ta harako abixue. Orduen andrak be umiok asko eukitten zittuen, baiña ez zien faten oingo moruen maternidadera eta. Umie ein biher euenien, medikuana. Igual handik etorri eta hara goiko baserrirako abixue, andriek umie ein biher dauela eta; goixeko ordu bixetan iguel, bestetik etorritta. Gero barriro handik etorri eta ez dakit norakue. Beste basarriren baterako eta. Kalekuak ba [gauzen] egogi bertan baiñe, baserririk baserri medikuek asko [ibilli biher izeten euen]. Gaurkuek ein biher baleue hori, eneeee! Hola zan.

-Mediku bakarra herri guztirako?

-Danerako. Praktikante bat. Praktikante bat gero etorri zan indizñuak edo holan emuteko-edo. Gero etorri zan. Baiña ni txikixe nintzela praktikanteik ez euen hemen. Praktikantie hona lehelengo etorri zanerako nik igual euko nittuen... Oiartzungo bat etorriko zan lehelengo hona, eta nik iguel eukiko nittuen hemezortzi edo...

-Urtiak.

-Bai, urtiek.

3. Familia handiak baserri guztietan

- **Erref:** ARE-016/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Familia handiak etxe guztietan. Erditzeko garaian arazoak sortzen zirenean, ospitalera eramaten zen ama. Parterarik ez zegoen; auzoko emakumeak izaten ziren laguntzen zutenak.</p>

Transkripzioa

-Bestela, andrak, esan dozu, umiak-eta baserrixetan-eta edo etxian bertan eukitzen zittuen, ez?

-Umiek? Bai, bateonbati trabau eitten bajakon bidien umioi kanpora datorrela, ba, gizon pillo baten artien nunbaitten hartu bixkerrien eta kalera ekarri eta gero Gasteizera edo norabait erueten euen. Geuri ez jakun tokau holako gauzaik, ezta? geure etxien-eta, baiña nun edo nun izeten zan beti ondo etorri ez umia, eta kanpora, klinikan batera, norabait erueten euen andrioi. Norabait. Nik ez dakit nora.

-Eta bestela, medikua esan dozu ibiltzen zala basarri basarri; parterarik-eta egoten zan?

-Parterak? Ba holako baserrixetan apur bat ohittute dauzenen batzuk edo. Holako... ba, esku fiñekon batzuk. Betik egoten da persona egogitxuaue, eta medikuek ya esanda zuk atendidu iozu hari, edo neuk ezin bada, zeu fan. Oseake, medikuek emundako libertadiaz, autorizaziñuaz bateonbat egoten zan, bateonbat egoten zan. Ba bat han eta besten bat beste nunbaitten, edo... andran bat. Baiña titulurik-eta ezta-ezta-ezta ezebez. Orduen be umiok jaxoten zien.

- Hori da, ez? Asko gaiñera.
- Asko gaiñera.

4. Eskola kontuak Errepublika garaian

- **Erref:** ARE-016/006
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Baserri ingurua nolakoa zen; kale-baserria zen beraiena. Eskolara, herrira joaten zen. Dotrina ikastearen garrantzia. Errepublika garaian, dotrina eta elizako kontuak eskolatik kanpo utzi zituzten; orduko oroitzapenak.

Transkripzioa

- Umetan hemen basarrixa kaletik gertu zekazuen?
- E?
- Basarrixa kaletik gertu, ezta?
- Bai, gertuen-gertuen geuk, hemen ez euen besterik. Hemen, errekatik honutz, ez euen etxerik bape be. Gertuen geu, geu bakarrik giñan ta.
- Dana dala, orduan etxe hauek be ez zian egongo?
- E?
- Etxe hauek be ez zian egongo.
- Ez, ez, bai zera! Honeik ez. Honeik etxiok ein zien “el año setenta”-edo.
- Orduan, pixkat apartetxuago geratuko zan herrixa, baiña hala ta guztiz nahiko ...
- Bai, bai, hemetik lauhun metrora dao, hortxe, hortxe, bueltia pasau ta... hortxe bertan dao.
- Eta ume-umetatik eskolara-eta, herrira?
- Herrira, bai, herrira. Ta eskolara baten hara fan nitzen, esan notsun hori, abadiak ze galdetu osten? Eskolara hor goiko... hor dao Izurieta herri bat, San Pedro.
- Ez, ez, ez. Ia, kontau...
- Ba, han euen abade bat ta bialdu nindduen hara, hareana, ta, ez dakit nik, orduko kalera etorten nitzen, bai, irakurten apur bat banekixen, ta dotriña eruan bihar izaten zan, eskolara, bi dotriña klase, lehenegunian be esan notsun, dotriña haundixa eta dotriña txikixa; lehenengo dotriña txikixa ikasi bihar izaten zan dana, eta gero dotriña haundixa. Eta abadiorreana fan nintzen ta, abadiori, iñor be ez euen, abadie kanpora fanda, entierroa, bueno han mutikua han etxoitten dauela, ba, neu bakarrik nenguen, itxuria bestiek faten zienak baekixen ez etorrela ta. Etorri zan abadiori ta deittu osten barrura ta [jarritta ifini nindduen ta]: “Dotriña ekarri dok?”, “Bai”. Ta erakutsi notsen dotriñoi, ta: “Nun habil?”
- Eta?
- “Nun habil?” Ta nik, ze karajo, orduntxe arte ikusi barik, eta zer esango notsen, ba, nik? Ezebez. Lehelengo-lehelengo galderia ifiñi osten, “sinismena zer da?”. “Hau, hemetik honaiño, hori, bixarko ikasitta etorri!” esan osten. Esan notsun, ba, zela han, han emuten euela etxerako zerreiñoi, lanoi. Eskolan ez, maixuek ez, baiña abadiak bai, dotriñan bai. Siñismena zer dan badakitzu, siñismena zer dan?
- Gogoratzen dozu ondiokan erantzuna?

- Bai, bai. "Ikusi ez deguna, Jaungoikuak hala agertu duelako, egitzat eukitzea da sinismena!". Ikusi ez doun, ikusten ez douna, ezta? Ba, harek agertu oskun gauzia, ba, egitzat ifinttia sinismena. Ha [...] gero, ha ikesten, etxera etorri eta ha ikesten egon nintzen. Ta ordurako irakurteko beste apur bat jakingo neuen, ez dakit. [Ha zan], nun nabillen galdetu osten. Harek baekixen ni iñun be ez nebillela! Baiña mutikuai burla itten oso gauza erreza da.

- Dotriña, orduan, abadiak emoten zeban?

- Bai.

- Eskolan ez zenduen emoten?

- Eskolan emuten euen, garai hartan artien bai, eskolan emuten euen, baiña abadiana fan nintzen ni eskolan, holan... ba, abadiorrek, hola, partikular, aparte moduan emuten euen eskolia. Eskolan emuten euen baiña "el año 31" republikiak triunfau [euenien] —egunien edo orduan urtien "el año treinta y uno" uste dot zala republikiak triunfau euela— eta orduan ya eskolatik, honeik, Santo Kristuok-eta kendu zittuen ta elizako zerak eskolatik kendu ein zittuen. Eta gero fan biher izeten zan dotriña, maixuek ez euen emuten. Nik maixua, neure maixua, negarrez ikusitte dauket eskolan, hareik kendu zittuenien. Ha oso... oso zera zan, elizarako edo, nik ez dakit, akaso hak be pekatuak eukiko zittun geu letxe ta zeu letxe, zeuk be eukiko dittuzu baten batzuk eta! Ez dakigu ezer! Ta negarrez kendu zittuelako, Santo Kristuok eta elizak eskolatik kendu zittuelako. Negarrez, mutikoi holako hitzalditxo bat ein oskun, ta negar itten euen maixu horrek, negar itten euen, e! Kendu zittuelako hak pena hartu euen. Oseake, ha bera zan, ba, beste idea batzuetakua, eta gero, ba, republikiorrek, ba, horreik gauzok, kontra euen republikioi, ta kendu in zittuen eskolatik.

5. Errepublikaren aldarrikapena

- **Erref:** ARE-016/007
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Errepublikaren aldarrikapenaren inguruko gogoetak. Etxean zer entzuten zuten...

Transkripzioa

- "Catorce de abril"?

- Bai

- Ni akordetan naz horreikin gauzokin, akordetan naz, bai.

- Akordatzen zara?

- Bai, bai, bai.

- Orduan, beratzi urte eskas, ez?

- E?

- Beratzi urte eukiko zenduzela zuk, ez?

- Bai, bai, horreitek, beratzi urte nik eukiko nittun ordun eta ondo akordetan naz ni orduko... Hemen baserrixetan ta, ba, pentsetan zan, ba, republikiorreaz pentsetan geuen hareik gizon edo pertsona txarrak ziela, haxe erakusten oskuen ta. Ba, dotriñan ta haxe erakusten oskuen ta.

Baserrixetan gurasuek-eta be, ba, horreik, baserriko koittauak, koittauak, koittauak... bueno, itten euen bizimodua! Hareik txarrak ziela, ba, jente txarra zala, oseake, "dañino" edo, nik ez dakit, ba, zela esan leikien zala ta, kasi-kasik, republikanuen onduen pasetia, hola, erreparua edo [mutikuei] edo bilddurra, ba... geiztuak ziela esaten oskuen ta!

- Eta hori esaten zetsuen, zer, eskolan?

- Etxien-ta, etxien-ta emuten euen konsejua.

- Eta etxian, baiña, nun entzunda edo zeñek esanda etxekueri?

- Etxien? Euren artien, beste aldameneko beziñon bateaz ta. Euren artien itten zittuen berbak. Pentsetan geuen, ba, haik personak ... Hor goixen euen etxe mordotxo bat, orduentxe fabrikante batek eindde. Garai hartan kanpotik etorri zan hor Zamora aldetik jentia, hona lanera. Eta horreik danok zien, ba, ezkerrekaldekua edo gehixenok zien. Ta kasi-kasik haik egozen lekutik pasetan, neuk, behintzet, erreparua eukitten neuen, geiztuak ziela esaten oskuen haik eta! Geiztuak ziela ta, ba, geiztuak ziela ta ez dakiu, ba, iñori hozka edo haginke edo zer itten otsen! Holaxe bizi gintzen ta.

- Eta zer zien zeuendako, gorrixak?

- Gorrixek, bai, gorrixek ... ta gorrixok, ba...

- Diabruak, ez?

- Diabruak gorrixok.

6. Errepublikara; Gerra Zibila

- **Erref:** ARE-016/008
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Errepublikaren aldarrikapenaren inguruko gogoetak; Alfonso XIII. Niceto Alcalá Zamora Aretxabaletara etorri zeneko kontuak. Gerra, politika kontuak. Euskadiko gobernua. Gerra Zibila Aretxabaletan. Baserri inguruan frontea egon zenean, erreketek izan zituzten inguruan.</p>

Transkripzioa

-Eta zer zien zureta, gorrixak?

-Bai, gorrixek, gorrixek, gorrixek, bai gorrixek. Eta gorrixok ba...

-Diabruak, ez?

-Bai.

-Eta orduan Errepublikia proklamau zanian.

-Bai, erregioi fan zan, honen aittona "Alfonso trece" euen orduen eta hemendik ihes ein euen kanpora, eskubidiek kendu utsen eta fan zan. Eta gero ba Azaña-eta, Alcalá Zamora-eta. Eskolara-eta etorten jakun gobiernoko batzuk beti be bisitta bat eitten.

-Akordatzen jatzu zein etorri zan?

-Baten etorri zan Aniceto Alcalá Zamora. Baten etorri jakun. Nik ez dakit zer-edo, txalo-edo jo biherko guntsen, ez naz akordetan horregaz, baiña Aniceto Alcalá Zamora zala. Eta han egon zan eskolan maisua-eta, eta apur bat egon zan, eta zerbait esan oskun mutikuoi...

-Ez edozein, orduan, e.

-Horrek herri danetatik pasauko zien. Eukiko zittuen... Oin be faten da lehendakari edo presidentie edo gure dana, oin be holako zeretara beti be faten da norabait. Atzo be hor Estibalizen edo zeran be egon die agintarixok. Orduen be berdin. Artien Euzkadiko gobiernua [ez euan]. Euzkadiko gobiernue gu ez giñen enterau hemen. Hau ordurako nazionalak hartuta euken. Hau zoniau. Eta frentie hor euen, hor aurrekaldien bertan euen frentia; gorrixek han egozen, eta, klaro, Euska Herrixen gobiernue formau zan treintaiseisien azken aldera edo sietien edo gure dana. Eta guk hemetik Bilbo hartu artien-edo guk ez gekixen Euzkadiko gobiernua geukenik. Gero behintzet Elorrixora edo hor aillegau artien Bizkeire. Bueno, behintzet ni mutikue, nik ez nekixen. [Egozenak] jakiñien egongo zien orduen be, expertuek-edo, hola dabitzenak, "al tanto" dagozenak egongo zien jakiñien. Alkatiek-eta jakingo zittuen horrek gauzok igual. Hola korriente, gobiernua dagola Euzkadin, gobiernua dagola... Ni ez nintzen enterau Euzkadiko gobiernua dagonik hamabost urte [...].

-Orduan frentia Elorrixo aldera, Bizkaira aillegau zanian...

-Bai, orduen hasi zan zabalketan gauzoi. Elorrixora aillegau zienien, "uno de abril" hasi zan, hortxe, hementxe hasi zan frentie. Hor [gure] etxien [...], reketiek euki gittuen, naparrak, egun guztie. Oso ondo [portetan] zien gugaz, oso ondo [portetan] zien, ez [oskuen] bizimodu txarrik ezelakoik be emun [...]. Hola politikan... bai, nazionalistei botue emon eta bai, baiña besteik ez, PNVe botue emon [...].

7. Baserriko bizimodua umetan

- **Erref:** ARE-016/009
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Gurasoen jatorria. Baserriko bizimodua umetan; eskola kontuak. Bizitzarekiko ikuspegia.

8. Umetako kontuak; baserriko bizimodua

- **Erref:** ARE-016/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:23:40

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Baserriko bizimodua; bizitzarekiko ikuspegia. Baserriko lanak umetan; jolasteko denbora gutxi izaten zuten.

9. Neska-mutilak baserrian

- **Erref:** ARE-016/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:23:40. **Bukatu:** 00:26:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Ume-umetatik baserriko lanetan laguntzen zuten: ganadu-zain... Bizitzarekiko ikuspegia. Neska-mutilen lanak.

10. Umetako jolasak

- **Erref:** ARE-016/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:27:15

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: "azkenka", sokasaltoan...</p>

11. Umetako okerkeriak

- **Erref:** ARE-016/013
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:29:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetako okerkeriak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com